BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

5693

AGINDUA, 2011ko urriaren 26koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Haur Hezkuntzako (2. zikloa), Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko ikastetxe pribatuetan 2010-2012 ikasturterako hitzartu beharreko ikasgelak zehazten dituen Agindua aldatzen duena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2011ko irailaren 27ko Aginduaren bidez, Haur Hezkuntzako (2. zikloa), Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko ikastetxe pribatuetan 2010-2012 ikasturterako hitzartu beharreko ikasgelak zehazten dira.

Hezkuntzako Sailburuordetzak Donostiako CPEIPS María Reina HLBHIP ikastetxearentzat hitzartutakoa aldatzeko proposamena egin duenez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari buruzko abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.c) artikuluarekin bat, aldaketa hori egiten da Agindu honen bidez.

EBATZI DUT:

Haur Hezkuntzako (2. zikloa), Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko ikastetxe pribatuetan 2010-2012 ikasturterako hitzartu beharreko ikasgelak zehazten dituen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2011ko irailaren 27ko Aginduaren eranskina aldatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urriaren 26a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ

Ondorengo unitatea gehituko da:

ERANSKINA

GIPUZKOA

Udalerria	Ikastetxearen izena	Maila	Izena	Modulua	Gelak	Mod. euroak
Donostia-San Sebastián	CPEIPS María Reina HLBHIP	DBH 2. zikloa	Curriculum aniztasuna	Osoa	1	50.247,12